

Har-zuloa
Autorretratu emaztegai (toxiko)arekin
Jakingarriak

Tomislav Vrečar



Itzulpena: Hitzurun Hizkuntz Zerbitzuak

bestehitzak **drugebesede**
||| | | |||



Har-zuloa*

Goizean goiz zurubiak kokatzen ari naizela, denbora gutxi igaro da karranka ari den Oin Handi bat kalea konkistatzera zerutik jaitsi den arte; kaio bat. Harro dabil, poltsa beltz bat du helburu, poltsa beltz asko. Jendeak etxeen aurrean uzten ditu, zabor-biltzaileek bil ditzaten goizean. Gertuen dagoenari begiratzen dio, eta barrenak mokokatzen hasi da. Jendeak utzitako hondarrak bilatzen ari da; bukatu gabeko hozkadak; digeritu ezin lukeen zerbait; jateko moduko puskak, isilpean hobeto gordeko liratekeenak. Ez dago ezer kaioaren arreta galarazten duenik, poltsa beltzaren edukia urduri urratzen ari den bitartean, egunaren goizean aurpegi berriren bat ekartzen ari den bitartean, apendizeari existentziaren har-zulotik luzatzen ari den bitartean. Dena da bizirautea, zabor-miatzailea izatea, eta besteen bizitzez elikatzea, eta aire-bafadarik ahulenarena ere espero baino haratago hedatzen da, baretasunean iltzatuta.

Haizeak porlanezko fatxadetan atxikita dauden horma-irudien itsasgarririk gabeko zatiak musukatzen ditu berak erraztatutako kaleetan barrena. Horma-irudiak espazioan hedatzen dira, katalogo batetik eskatu diren emaztegaiek bezala hasperen eginez, urrutiko pausoen oihartzunak metatuz. Bakardade fotokopiatuaren erritmoa. Elkartutako gorputzak. Laino bustia eta haren gorputz aldakorra: irakurtezina, urratua, lausotua; zaporerik gabeko hitzen zatiak, hitz handiak eta gauzen zatiak. Begi batetik bestera hedatzen den hutsunea. Lehenengo hatz-koskorretik azkeneraino. Haizea eta haren kulunka. Behin, heriotza hemendik pasatu zen. Halako batean dardara bizkarrezurrean zehar berriro. Erortzen ari den igeltsua, barnealde gorrixkaren adreiluzko ehuna agerian uzten duena. Iluntasunak makurtutako hesiak, ukitu igarokorrek irristakor bihurtuak, argi gabeziagatik herdoilduak; euriak eta haren doinuak altzairuaren usaina jaten diete. Polibinil klorurozko poltsa beltzak eta beren askotariko urdailak. Beharraren polipoak tatuatuak dituzten hesteak. Gosearen aniztasuna. Isiltasunaren singularitasuna. Existentzia baten barrualde urratua.

(Zirrikitu baten tartearen txingarretan itotzen naiz zigarro bat pizten dudanean, itxaronez, zupadak eginez, oraindik osatu gabe dauden espazioan eta denboran sartuz. Zigarroa erre ondoren idazten hasten naiz, leku berera itzuli ahal izateko momentu batez. Eta leku hau zer da?)

Mundua isilpean dagoen iraunkortasun samurreko gizakiarengan sortzen da. Eta espazioan dagoen iraunkortasun isilak hiltzen du. Hemen ez zaudenean, ez hemen ez han, leku guztietan zaude. Aldiberekotasunaren eltzean ez erortzeko distantzia egokia aurkitu behar duzu, hori bakarrik, zenbakitzeko katilu horretatik (non dena antolatuta dagoen, eta txukun) kanpo geratzeko. Txukuntasuna aldiberekotasunaren salneurria da; modernoa da, besteek kolore-ñabardurak eta formak ezartzen dituztenean. Zerbait harrapatu nahian, garai edo momentu baten eranskina omen den zerbait, besteen onarpena lortzeko ahalegin hutsa, itxaropenaren amarruan erortzekoa, agerian ez geratzekoa beti kimatu eta makurtu behar den belar gaizto hezigaitz baten gisara.

Argiak hautsa erretzen du figuratik, eta, horrela, garbitu egiten du, ikus ahal izan dezadan. Gizon gazte lirain bat, erosotasunez eta ohituraz jantzita, begirune falta maltzurki perfektua, antzinako berniz mota bat, eskarmentu unibertsalez janda. Figura horri ez dio ezerk begirunea sorrarazten; edozein motatako hierarkia aitortzeko erabateko ezintasuna; itxurazko heziketa adierazteko gaitasunean oinarritzen den zinismoa. Beheko esferatik datorren jakinduria, gaizki ordaindutako eskulana egitera kondenatuta dagoen ume zoliaren jakinduria; harentzat, klase altuak berarengandik atera dezakeen balioa baitu; harrapatu eta arpilatu behar den animalia basatia baita... laburbilduz, bere askatasunarekiko eta patuarekiko leiala den barrabasa baita. Bai, ikusten dudana hori da, eta nire barruan diot: "Aizu, hori zu zara!!"

Ez dago zalantzarik, pentsamenduek behaketa menperatzen dute, behaketarekin lotura estua dute, eta, behaketarekin gertatzen den bezala, irrealak den horrek desegin egiten ditu. Hostoek ez dute hodeitik jauzi egiten. Hostoak erori egiten dira udazkenean.

Abenturetan sinetsi nahi nuke, istorioak osatzeko. Hitz egiten dut, besterik gabe. Burua kokatzeko dut, besterik gabe. Menperatuta eta sakabanatuta. Eta ataria agerian uzten dut, egun hondatuaren haizean sartuz. Bizitzaren bat konpontzeko irtenbide bihurtzeko tentaldiak erakartzen nau beti, eta horren irudiek nire bizitzaz ahaztera behartzen naute. Utz diezadatela naizenaren azpian dagoen itsasoan sartzen. Horrela izan ez bedi, bizitza ez da egunen bateratasuna, ez dugu aztarnarik uzten, oraindik iritsi ez denaren aitzindariak gara.

"Arratsalde on, baduzue poltsa bat niretzat?" Autobus-gidariak goitik behera eta behetik gora begiratzen nau: "Nondik?". "Nova Goricatik", diot. Autobusetik ateratzen da, eta maletategitik ateratzen duen poltsa handia ematen dit. Hartu, eta eskertu egiten diot. Poltsa pisutsu samarra da; polibinil kloruroz egindakoa da, eta kolore askotako marrak ditu. Iheslariak beren ondasun xumeak garaitzeko erabiltzen dituzten poltsen erabateko antza du. Mina daukat bularrean, mugitzeko arazoak, baita arnasa hartzekoak ere. Semaforoan nagoela, kolpetxo bat sentitzen dut sorbaldan. "Jauna? Jauna?". Atzera begiratzen dut, eta bi polizia ditut han. "Jauna, etorri hona, mesedez". Ez du zentzurik, baina esandakoa egiten dut. "Identifikazioa, mesedez". Identifikazio-txartela ateratzen dut, eta eman egiten diot. "Zer duzu poltsan, jauna?" Handik unetxo batera, zera esaten diot: "Paketeak giza laguntza darama". "Barkatu?", poliziak susmo txarrez begiratzen dit. "Janaria, amak bidalitakoa". Agenteak susmo txarrez begiratzen dit oraindik, eta, gero, beste poliziari poltsan begiratzeko esaten dio. Poltsa hartzen du, eta miatzen hasten da. Goragalea dut berriro, poliziak nire hesteak orrazten ariko balitz bezala sentitzen naiz.

Goragalearekin, lotsa elkartzen da, egun-argiz da, pertsona asko daude, eta horietako batzuk adi-adi begira ari dira. Poliziak poltsa miatzen eta astintzen jarraitzen du, eta haserretzen hasi naiz.

Biluzik sentitzen naiz, ezkutalekurik gabe. Azkenean, nire hesteei bakea ematen die, begirada altxatzen du, eta beste poliziarri keinu bat egiten dio buruarekin, "Mutila egia esaten ari da, janaria da" esango balio bezala. Lehenengo agenteak txartela itzultzen dit, eta bigarrenak poltsa itzultzen dit. "Ondo da, joan zaitezke, egun on pasa!" Eta abiatzen naiz, nire heste profanatuez nazka-nazka eginda. Ama ikus dezaket, baita poltsa autobusean sartzeko behar izan zuen egoskortasuna eta ahalegina ere. Dena beltz bihurtzen da.

* 'Har-zulo' terminoa, fisika-arloan, John Archibald Wheeler-ek erabili zuen 1957an lehenengoz; Wheeler Einstein-en azken lankide eta ondorengoetakoa izan zen. Sagar baten azalean har batek egiten duen mugimendutik eratorria da esapidea: sagarraren azala unibertsoa da. Harrak sagarraren barruan aztarrika egin dezake, eta, horrela, bidezidorra egiten du azalean zeharreko bide luzeagoa erabili ordez. Beraz, teorian, bidaiari batek unibertsoaren beste aldera joateko bidezidor bat har dezake espazio dimentsioaniztun batean. Teorikoki, har-zulo batek denbora-bidaiak ahalbidetzen ditu. Denboraren atzerapenagatik, har-zuloan badago materia har-zuloa bera existitu baino lehen.

Autorretratua emaztegai (toxiko)arekin

Guztiok azkarrak, guztiok hilik! Guztiok berdinak, guztiok goian! Guztiok ezberdinak, guztiok anai-arrebak eta armarik gabe. Guztiok armarik gabe, guztiok inor ez. Hasieratik poetak izango ez bagina, ez ginateke existituko ere, kontzientzia deritzon ohartasun hori ez litzatekeelako existituko. Poeta bat, lehenik eta behin, nahi edo nahi ez, kontzientzia duen gizona da. Gauza guztiak gero eta mingarriagoak dira poeta baten ikuspuntutik. Minak dago, goian dago, zaurituta, baina, aldi berean, bereziki pozik dago, eta umore txarrez beti. Titiburu beldurtuak Weltschmerz-ez bustita dauzka. Poeta bat heriotzaren barnealdean sartzen ausartzen da, eta, han bertan, biriketan hartzen du poz bitxi hori, drogarik eroena, droga guztien droga; eta, han, menpekotasunean erortzen da. Eta horrela, lehenengo aldian, heriotzaren alde erotikoarekin elkartu zen.

Gorputz iluna nabarmendu zen, jakinarazte-momentua bikoiztu egin zen, eta, orduan, bat-batean gertatu zen. Une horretan, mundua bera bikoizten hasi zen, mugimendu guztiak automatiko bihurtu ziren, konturatu zen goizean aurpegia ezezagun bati aurre egiten ari zitzaiola; isla okertu hori onartu behar al luke? Gerra bat piztu zen, eta zein beldurtzen da gehien? Gorputza norena da benetan? Isla norena da, eta norena ez? Menpekotasuna eta behartutako adiskidantza. Itzalak sortetan erortzen dira; ez dute aurpegiei buruz ezer galdetzen. Begitazioak mugiarazten ditu, axolagabetasunera bidali, ohituren esklabo. Beste zulo bat, mesedez! Beste zulo bat eskatzen ari natzaizu, ondo? Baiezkoa buruarekin, ni bakardadean murgildu baino lehen, hori saihestezina baitzait. Zure zain nago, Nahia, hona etorri eta zure gosea jaraunspen gisa eman didaten munduarekin asetzeko.

(Leku guztietan begiratu nuen, baina, noski ez nuen aurkitu; barruan zegoen, beste inon ez. Barruan eskuetan nituen lehergailu guztiak, aurkeztu gabeko fakturak, dena metatzen ari zen; nire barruan su motelean zegoen.

Denbora borreroa da, bai aurretik dugunean, bai zain dagoenean; erritmoa harrapatzea zaila baino zailagoa da. Eta tontakeria hutsa da honako hauekin lotutako guztia: harmonia, fusioa, sentimendua eta zerbaitekin bat etortzea – edozein gauza dela ere–; zabor hutsa. Musika ez al da uhin magnetikoa, biderik eraginkorra existentziaren mamiraino iristeko, hausnarketa izorratzeko, eta ezereztearen gainean pentsatzeko?)

Jakingarriak

Menpekotasuna bizimodu bat da, gorputzean substantziak sartzean datza dena, eta, efektuak arintzen direnean, pertsonak giza aurpegia galtzen du; buruan, gauza bakarra dauka, hurrengo dosia aurkitzea, alegia, hori gabe ezin baituzu. Inoiz esnatu al zara amets eder batetik? Gogoratzen al zara nola haserretu zinen, nolako amorrua sentitu zenuen konturatu zinenean ametsa baino ez zela eta momentu zoragarria betirako galdu zela? Hain zuzen ere, horixe gertatzen zaio drogazale bati drogaren efektua arintzen denean; etsipen osoa sentitzen du, eta, askotan, etsipena bortxakeria huts bihurtzen da, eta bortxakeria hori ez da bukatzen drogaren hurrengo dosia agertu arte, edo abstinentzia-sindromea agertzen denean bere itsukeria osoan. Hori gertutik ikusi dut, nik neronek sentitu dut heroinarik gabe geratzea zer den, ametsa gure begietatik desagertzen denean. Drogazale bat lokartzen du, eta gizon apurtu batek amore ematen du. Substantzia hartzen dugu oihartzun bat entzutearen beldurragatik, gure barruan dagoen hutsunean dirdiratuko bailitzateke. Gorputza agortuek beldurtzen gaituzte, carne da macello-k; bekatariak gara; aspaldi egin genuen alde purgatoriotik; konturatu ginen infernuaren erdi-erdian ginela, non geure bekatuak iltze herdoildutuez tatuatuta dauden gure mamu-larru minduetan. Amesgaizto bizia; mina ematen digu, baina ezin dugu aurkitu bertan behera utzi nahi dugun gorputz hori, ukatu egin nahi duguna. Mamu sentitzen gara, emaztegai toxikoa elikatzen ari gara.

Hari horrela begiratuko bagenio, bat-batean, parke batean, honako hau litzateke zure lehen pentsamendua: demagun ezeztapenaren lokaztian iraulka ari zela, bueno, zehazki iraulka ez, eta irudikatzen dugu mugitzen ari dela etengabe, distantzia handiz atzeraka ibili dela aurrera igeri egin ahal izateko, bilaketaren zikintasunak erabat kutsatuta; herri gris eta euritsuan dabil, eta herria ilunago bihurtzen da urrats bakoitzean. Herri euritsua da, nahiz eta eguzkia izan kanpoan, eta oso eguzkitsu dago, baina euria metafora batean dakar, eskuaren gainean, zoritxarrekoak eduki behar duena harrapatu nahi duen eskuaren gainean, eta hark bere isla ikusten du euriaren tantetan. Esan ez den hitz-sorta bat estutzen ari da eskuan, eta erakusleihen aurrean dabil, eta, hor, badaude begiradekin jarraitzen duten manikiak; bera biluzik dago, eta etengabeko galderek hozminduta. Beirak begiradan, eta horietan zehar ikusten du; betazalak erortzen diren bakoitzean begiradak momentu batez atsedean har dezan, beirak ikusitakoan sartzen dira, eta euriaren tantak saihestezinaren minaz zikintzen dira; odolez estalita, esparru ezezagunean sartzen dira. Putzu guztietan izen bat ikusten du, irribarrerik gabeko txantxa baten isla; nolakoa da benetako izenaren soinua? Nolakoa da izen berezi baten soinua? Izen batek bete al dezake helbide iraunkorrik ez izatearen galera? Izenak, adierazle gisa, sukaldeko baltsamoen kiratsa du, atari abandonatu baten urratsetan entzuten ditugun lurrinak inora joaten ez den eskailera aldapatsu baten oihartzunean, beste labar bat eta beste jaitsiera bat, besterik gabe, eta horrek gero eta beherago eramaten du, are eta gutxiago ezagutzen diren gauzetara. Bere esanahiaz elikatzen dena izen bat, eta, aldi berean, ihes egiten diona. Bele bat harrapatzen du, eta hesteak irekitzen dizkio; oraindik bero dauden erraiak ateratzen dizkio, eta jan egiten ditu. Sineskeria batzuen arabera, bele baten barrenkiak janez gero, gizona iragarle bihurtzen da. Eta txoriaren erraiak gizonaren barruan sartzen direnean, gizonak bere buruari galdetzen dio: ahal dut? 'Ahal' hitzaren erabilera anbigua da: ahal du, eta ezin du, egoera zein den.

Beraz, bere burua seinalatzen duenean zer gertatzen da? Uste du arma eroriko dela; txoriaren batek lehen aurkitu ez zuen leihoaren kontra talka egingo du, eta hura esnatu, edo, besterik gabe, egurrezko zoruan irristatuko da, eta atzeraka erori. Dena dela, unibertsoan dagoen indar logiko batek muturreko ekintza hori egitea galaraziko dio. Armaren kakoan du hatza, eternitatearen atea noiz irekiko zain. Eta ate hori ireki egiten da, baina ez dago eternitaterik, bete behar den beste hutsune bat baizik, besterik ez.